



LITERAKTUM

Hitzen hiria

PROGRAMAZIO AURRERAPENA:

Madame Bovary-rekin solasaldia eta afaria

Literatura nobedadeak eta gaur egungo gaiak dira Literaktum jaialdiaren oinarri, baina aurtengo edizioan **klasiko bat berreskuratu** eta horren inguruan gehiago ezagutu eta solasteko aukera izango da tertulia eta afari baten bidez. Hautatutako eleberri klasikoa Gustave Flauberten **Madame Bovary** da.

Flauberten maisulanari buruzko saioa **azaroaren 24an** izango da, ostiralarekin, eta bi zatitan banatuko da: lehenik, solasaldi literarioa egingo da eta afari literarioa, ondoren. **Solasaldia** edonori irekia izango da eta **Madame Bovary**-ren munduaren inguruan giro goxoan hitz egiteko aukera izango da. Ondoren, beste ikuspuntu batetik begiratuko zaio Flauberten maisulanari: liburuan ageri diren plateretan oinarritutako **afarian**, hain zuzen. Ba al da liburu bati buruz hitz egiteko modu hoberik? Cofradía Vasca de Gastronomía elkarteak diseinatu du afariko menua eta Slawka Grabowska arduratuko da solasaldia bideratzeaz. **Afariaren prezioa 20 euro** da.

Afaria Cofradía Vasca de Gastronomía elkartean egingo da (Elbira Zipitria kalea, 2) eta parte hartzeko **lekuak mugatuak** dira. Gaurtik aurrera izena eman eta ordainketa egin

daitezke www.literaktum.eus webgunean. **Azaroaren 17ra arte** dago afarian izena emateko epea zabalik. Argibide gehiago liburutegiaalderdieder@donostia.eus helbidera zuzenduta eskura daitezke.

Aukera ezin hobea da belaunaldiz belaunaldi irakurleak liluratzeko gaitasunik galdu ez duen klasiko hau sakonetik ezagutzeko eta literatura zaleekin batera afari literarioaz gozatzeko.

Victor Hugori bisitan

Victor Hugo idazle klasikoak eta bere obrak ere izango dute lekua jaialdian. Azaroaren 25ean, **ibilbide literarioa** egingo da Pasai San Pedrotik Pasai Donibanera, eta Hugok denboraldi batez ostatu izandako etxeraino gidatuko ditu bidaiariak aktore talde batek. Etxea ez ezik, idazlearen zenbait eskuizkribu ezagutzeko aukera izango dute.

Hitzordua **Pasai San Pedroko torrea**n jarrita dago (ontziralekuan), **azaroaren 25ean, goizeko 11:00etan**, eta bertan parte hartzeko izena eman behar da alde zuzenetik honako helbidean: liburutegiaalderdieder@donostia.eus.